Zehaztapen Teknikoen Plegua, Komunikazio, Edukien Kudeaketa eta Marketin Digitaleko zerbitzua kontratatzeko.

20/03/2019

AURKIBIDEA

1 XEDEA 2

2 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK 2

2.1 SARE SOZIALAK 2

2.2 WEB EDO BLOG ESPEZIFIKOAK 4

2.3 EKITALDIEN ESTALDURA 4

2.4 MATERIALAK ENTREGATZEA 7

3 GIZA TALDEA ETA MATERIALA 7

4 BALDINTZA BEREZIAK 7

4.1 PROIEKTUA ANTOLATZEA ETA GAINBEGIRATZEA 7

4.2 JARRAIPEN ETA KONTROL MEKANISMOAK 8

4.3 ZERBITZUAREN ORDUTEGIA 8

4.4 SEGURTASUN ETA KONFIDENTZIALTASUN BALDINTZAK 9

4.5 JABETZA INTELEKTUALA 9

1 XEDEA

Zehaztapen Teknikoen Plegu honen xedea da Komunikazio, Edukien Kudeaketa eta Marketin Digitaleko zerbitzua kontratatzea.

2 ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean BFA) eskatutako Komunikazio, Edukien Kudeaketa eta Marketin Digitaleko zerbitzuak presentziako eta jarduerako estaldura integrala eman behar du, hala edukien plangintza arloan nola edukien sorrera eta hedapen arloan eta ekitaldien estalduraren arloan honako komunikazio eremu hauetan:

- Zugaztelek zehazten dituen sareko komunikazio sozialeko plataforma nagusietan: (Facebook, Youtube, Twitter, Instagram, Google+ etab.) baita, BFAri lotutako eduki tematikoak edo "kontuak" jasotzen dituzten pertsonen izaera dela eta, estrategikoak diren sare sozialetan ere.
- Baldin badaude, berezko komunikazio digitaleko eremuetan, hala nola: webgune autonomoak edo definitutako unitate tematikoen edo "kontuen" berariazko blogak.
- BFArenak diren telebista kanaletan edo streaming bidezko emanaldi-azpiegituran.

2.1 SARE SOZIALAK

BFAren Kanal Digitalen estrategiak hurrengo kontu hauek definitzen ditu, eta horien dinamizazioa eta edukien euskarria plegu honen xede dira: @bizkaia, @bizkaiagazteak, @bizkaiakultura, @bizkaiasocial, @bizkaiaemprende, @bizkaiaempresa, @bizkaiahacienda eta @visitbiscay.

BFAren Marketin Digitaleko Estrategia pleguaren indarraldian eguneratzeak ekar dezake gora egitea kontu instituzionalen edo kontu berria zabaltzeko kanal sozialen kopuruak. Zugaztelek adjudikaziodunari jakinaraziko dizkio kontu horretarako ezarritako baldintzak eta norainokoak Marketin Digitaleko estrategian, bete egin daitezen

Sare sozialetan edukien dinamizazioa eta euskarri zerbitzuak eta unean-unean definituta dauden kontuei lotutako profilak honako eginkizun hauek dituzte:

a) Multimedia edukiak sortzea, edukiak diseinatu eta maketatzea Zugaztelek eskatutako formatuan, kanaleko Social Media profil operatiboak diseinatzea grafikoki egokitzeko, profileko logotipoak eta ikonoak, infografien eta aplikazio estatikoen nahiz dinamikoen koherentzia grafikoa eta estilo-unitatea, etab.–, baita sortutako komunikazio-jarduera guztia ere, BFAri lotutako kontuetan eta profiletan definitutako irudi korporatiboaren estandarretara.

b) Aipatutako multimedia edukiak hedatzea eta xede-audientziaren segmentuekin elkarreragina.

c) Herritarrekin noranzko biko komunikazio eremuak ezartzea sare sozialetan, hala badagokio, entzuteko eta elkarrizketak izateko, eta horrela, BFAren jarduera eta zerbitzu arloei buruz informazio zehatza izateko. Informazio horrek, behin aztertuta, erabakiak hartzen lagunduko du BFAren jarduera publikoa hobetzeko.

d) Social Media aipamen guztiak (zeharkakoak nahiz zuzenekoak) monitorizatzen laguntzea –bai «handle», bai etiketa edo «keyword» bidez – plegu honen xede diren unitate tematikoei edo "kontuei" buruzkoak, eta komunikazio digitalaren ekosisteman identifikatuta daudenak.

e) Herritarren elkarreraginen kudeaketan parte hartzea, sareko komunikazio sozialen komunikabideetan irekitako BFAren departamentu-unitateen Social Media profiletan jasotakoak. Horretarako, soluzio zehatzak emango zaizkie herritarren informazio-eskakizunei eta, ahal den neurrian, BFAren sailek eska dezaketen prozesu transakzionalak eta administratiboak azkartuko dira.

f) Komunikabide sozialetan loturak bilatu eta sortzea BFAren unitate tematikoen edo "kontuen" interes- eta jarduketa-eremuei lotutako agente publiko eta pribatuekin. Horretarako, definitu eta abian jarriko dira jarraipen politika aktibo bat eta ekintzen estrategia zehatz bat «influencers»ekin.

g) BFAk sare sozialetan duen komunikazioaren estrategia aztertzea eta, Zugaztelekin koordinatuta, estrategia hori eguneratzea mantendu beharreko kanal bakoitzerako.

h) Zugaztelekin batera aritzea lan-fluxuak parametrizatzen eta mantentzen argitalpenak eta entzuketa kudeatzeko erabilitako erramintetan.

i) Zugaztelekin batera aritzea hileroko txostenak sortzen. Bertan estaldura emango zaie Social Media metrika nabarmen, doi eta zehatz guztiei, betiere plegu honen xede diren BFAren unitate tematikoen edo "kontuen" ospearen presentzia-, jarduera- eta monitorizazio-estrategiei buruzko arloetan.

   Sortutako txostenek metrika kuantitatibo eta kualitatiboen multzo osoa izan behar dute, aldizkakoak eta integratuak, erabakiak hartzeko informazio nabarmena emateko gai direnak. Aldez aurretik ezarritako helburuak betetzeko metodologia ere izan behar dute txostenek.

   Txosten horiek Zugaztelek egindako eskakizunei egokituko zaizkie, eta plegu honen xede den kontratuan zehar aldatu ahal izango dira.

2.2 WEB EDO BLOG ESPEZIFIKOAK

Webguneen edukiak aldiro eguneratu, sortu, kudeatu eta iraultzea, BFAk aldez aurretik egindako diseinuan oinarrituta eta kasuan kasu Zugaztelek definitutako arloei jarraituz.

Halaber, lankidetza behar da BFAren Web kanala eguneratu eta hedatzeko, definitutako gidalerroekin bat, herritarrek errazago erabil ditzaten BFAk eskaintzen dituen edukiak, eta horretarako, honako hauekin lotutako lanak egin beharko dira:

a) Web estrategia ezartzen jarraitu, BFAren zerbitzuei eta programei dagokienez.

b) Edukien erabilerraztasuna hobetu.

c) Webgunearen operatibitatea egiaztatu.

d) SEO kokatze ona izateko beharrezko diren etiketak orrialde bakoitzean ondo sartuta daudela kontrolatu.

e) Webgunean trafikoaren bilakaera aztertu eta jarraipena egin.

f) Hobetzeko proposamenak, abiaraztean parte hartu, hala badagokio, eta emaitzak aztertu.

g) Eduki guztiak behar bezala etiketatuta daudela balioetsi, erabiltzaileek erraz bilatu dezaten nahi duten edukia.

Unitate tematikoen edo “kontuen” gune espezifikoen web edukiak kudeatzeari dagokionez, ikuspuntu teknikoaren aldetik ingurune Digitalean egiten den Mutilmedia Komunikazioaren Zerbitzuaren proposamenak estaldura osoa eskaini behar du honako eginkizun hauetan:

a) Xede-audientziaren segmentu bakoitzarentzat interesekoak diren informazio iturri berriak bilatu eta bildu.

b) Aipatutako webguneen mantentzean diharduten agenteekiko harremana koordinatu.

c) Informaziari buruzko dokumentu-antolamendua eta tratamendua, eduki estrategikoak dituzten argitaratze-egutegiak proposatuz eta, hala badagokio, ondoren sortuz, editatuz eta produzituz.

2.3 EKITALDIEN ESTALDURA

Telebistan emateko sor litezkeen ekitaldien estaldura, beharrezkoak diren elementu teknikoak eta giza elementuak erabiliz.

Honelakoa izan daiteke estaldura:

Grabatutako emanaldiak

- Grabatutako ekitaldiak bideo kamera profesionalen bidez grabatuko dira, 16:9an eta formatu digitalean grabatzekoak, gero deskarga egin ahal izateko.
- Ekitaldi tipologia hau betetzeko enpresa adjudikaziodunak ordutegian 24*7ko prestasuna eskaini behar du, eta eskatutako lekuan aurkeztuko da gehienez 4 orduan, oharra ematen denetik hasita. Horretarako, telefono-zenbaki bat eta e-mail bat adierazi behar ditu.
- Enpresa adjudikaziodunak baliabide tekniko eta giza baliabide nahikoak izango ditu, sor litezkeen horrelako ekitaldiei aurre egiteko bestekoak direnak.

Zuzenean

- Enpresa adjudikaziodunak zuzeneko emanaldien produkzioa egingo du.
- Emanaldiak programazio-zerrenda batean oinarrituko dira, BFArekin batera adostuko dena.
- Ekitaldiak heterogeneoak direnez, ekitaldiaren estaldura aldatu egingo da; beraz, enpresa adjudikaziodunak prestasun malgua bermatu beharko du ordutegiari eta egutegiari dagokienez (asteburua, jaiegunak...).
- Zuzeneko ekitaldiak emateko Real Server plataformaren streaming azpiegitura erabiliko da. Horretarako, enpresa adjudikaziodunak seinalea kodifikatuko du eta Zugaztelek adierazitako zerbitzariei helaraziko die. Bideo seinalea kodifikatu eta formatu egokietan igoko du hainbat gailutan bistaratzeko eta/edo Helix Producer produktua erabili.
- Postprodukzioa egin beharko da diferituan emateko. Horretarako, materialaren azken entregatzea egingo da, honako hauek dituela: Goi-mailako kalitateko MP4 formatuan dagoen fitxategia (1080p) eta sortutako bideoen jatorrizko edizio-fitxategiak (premiere proiektuak, after effects, final cut edo muntaketarako erabilitako erreminta).

2.4 BIDEOAK EDITATZEA ETA PRODUZITZEA.

Enpresa adjudikaziodunak bere gain hartuko du testu grafiko, audio eta bideoen eduki berriak editatu, kudeatu, manipulatu eta sailkatzea:

Bideoen produkzioa honako ezaugarri hauei jarraituta egingo da:

a) Formatua: bideoak MP4an entregatuko dira eta ezingo dute inolako murrizketarik izan (adib. Egile-eskubideak dituen musika) ohiko sare

sozialen zerbitzarietara igo ahal izateko, baita oraingo gailu digitaletan erreproduzitzeko ere.

b) Hizkuntza: Bideo bakoitza euskaraz eta gaztelaniaz egingo da, eta ingelesez ere eska daiteke. XML fitxategiak entregatuko dira, bideoen transkripzioekin batera, adierazitako hizkuntzetan.
c) Iraupena: Bideo bakoitzaren iraupena 1 eta 5 minutu bitartekoa izango da, gaiaren eta beharren arabera, dagokion gidoiari jarraituz.
d) Bideoen ezaugarriak: BFAren instalazioetan edo beste leku batzuetan grabatutako irudiak izan ditzakete bideoek, eta off ahotsarekin. Hainbat gairi buruzkoak izan daitezke, eta horretarako aktoreak, jantziteria, argiztapena, barne grabazioa, kanpo grabazioa, funts propioa e.a. izan beharko dira.
e) Gidoiak: Enpresa adjudikaziodunak gidoi bat prestatu beharko du produzitu beharreko bideo bakoitzeko. Gidoiak gai zehatz bat izango du, aldizkako koordinazio bileretan zehaztuko den plangintzan adieraziko zaiona. Bideoa egin baino lehen onartu behar da gidoia.
f) Ezaugarri teknikoak: Enpresa lizitatzaileak bideoak egiteko erabiliko dituen erreminten deskribapena aurkeztuko da. Bideoen kalitatea, gutxienez, 1080p-koa izango da.
g) Egin beharreko bideo-kopurua: gehienez, 30 urtean.
h) Bideoen edukia: berrien erredakzioa, Bizkaiko Lurralde Historikoari buruzko edukien erredakzioa.
i) Bideoen produkzioak eta edizioak honakoa eskatzen du:
   - Bideo kamera profesionalak, argazki kamerak eta audio grabagailuak erabiltzea.
   - Era guztietako audio eta bideo fitxategiak erabiltzea, hainbat formatutara aldatzea (DVD, Interneten jartzeko optimizatuak, e..a.)
   - Drone kameradunak erabiltzea aireko bideo-hartzeak eta argazkiak egiteko.
j) Katalogazioa:

Enpresa adjudikaziodunak dauden bideoen eta argazkien katalogazioa egin beharko du, eta horretarako:

- Bideoen eta argazkien inbentarioa egingo du.
- Elementuak adierazten den software erremintari erantsiko dizkio.
- Bideo edo argazki bakoitzarentzat egokiak diren gaiak identifikatuko ditu.

Helburua da bideoen eta argazkien katalogo bat egitea hala dauden materialekin nola sortuko diren berriekin.

2.4 MATERIALAK ENTREGATZEA

Hilero entregatuko da plegu honen xede den zerbitzuan egindako materiala, aldiriko bileretan ezarritako plangintzari jarraituz.

Webgunean eta komunikabide sozialetan argitaratutako edukien kasuan, Social Media profil operatiboen egokitzaepn grafikoa eskatzen da –kanal covers-ak, profil-logotipoak eta -ikonoak, infografia eta aplikazio estatikoen eta dinamikoen koherentzia grafikoa eta estilo-unitatea, etab.–, baita sortutako komunikazio-jarduera guztia ere, BFAri lotutako webgunean, kontuetan eta profiletan definitutako irudi korporatiboaren estandarretara.

Bideoak sortu eta produzitzeari dagokionez, entregagai bakoitzak hurrengo material guztia izan behar du, eta teknikoki egokitu ahal zaie plataforma teknologikoen beharrei kontratu honek dirauen bitartean (Ikus 1. eranskina).

Entregatutako materiala Zugaztelena izango da.

3 GIZA TALDEA ETA MATERIALA

Enpresa adjudikaziodunak giza baliabideak eta tekniko nahikoak izango ditu, sor litekeen eskaerari aurre egiteko beste direnak.

4 BALDINTZA BEREZIAK

4.1 PROIEKTUA ANTOLATZEA ETA GAINBEGIRATZEA

Enpresa esleipendunak arduradun/solaskide bakarra izendatuko du Zugaztelen, Proiektuaren arduradun gisa.

Proiektuaren arduradunaren lana izango da egin beharreko lanen plangintza, jarraipena eta kontrola egitea eta kalitate-maila egiaztatzea. Solaskide horrek jasoko ditu Zugaztelen instrukzio orokorrak, eta ardura horren solaskide izango da.

Arduradunak proiektua garatzeko lan taldea koordinatuko du, proiektuko eginkizun guztiak egiteko. Bereziki, honako funtzio hauei erreparatuko zaie:

- Eskaintzan proposatu eta Zugaztelek onartutako lan-plangintzaren jarraipena, zorrotz beteko direla plangintza horretan jasotako epeak eta gertaerak.
- Berehala jakinaraziko da kontratuko baldintzetan izandako edozein aldaketa (langileak, alde teknikoa, alde ekonomikoa etab.), betiere esleipendunarenak ez diren arrazoiak badira.
- Berehala jakinaraziko dizkio Zugazteli lana egitean izan daitezkeen ondorioak eta/edo arazoak: plangintzan aldaketak egoteagatik, aurreikusitako gertaerak ez betetzeagatik, proiektuaren irismenean

aldaketak izateagatik, egindako eta onartutako eginkizunetan aldaketak egiteagatik, etab.

4.2 JARRAIPEN ETA KONTROL MEKANISMOAK

Proiektua hasi baino lehen, kontrol-prozedura guztiak ezarri beharko dira era jarraituan egiaztatzeko zehaztutako helburuak bete direla, hala epeetan nola azken kalitatean.
Hauek dira mekanismoetako batzuk:

- Jarraipen-bilerak: bilerak egingo dira, aldiro edo erabaki puntuekin bat, planfikatutako eginkizunen betetze maila, produktuak entregatu diren, langileen berresleipenak, egin beharreko jardueren balidatzea aztertzeko, eta abarrerako.
- Egoera eta aurrerapen txostenak. Horien bidez Zugazteli jakinaraziko zaio nola doazen lanak, zer nolako helburuak lortu diren, zer nolako gorabeherak izan diren, e.a
- Eginkizunen kontrol-orriak, proiektuaren hasieran adostutakoak.
- Proiektuak kudeatzeko beste edozein dokumentu, Zugaztelek hala eskatuta, proiektua kontrolatzeko mekanismo gisa erabil badaiteke.

Uneoro, adjudikazioaren aurretik edo ondoren eta lanak egin bitartean, Zugaztelek ahalmena du edozein agiri osagarri eskatzeko, zertarako eta enpresa lizitatzaileak bai hari buruz bai langileei buruz emandako datuak egiaztatzeko.

Enpresa lizitatzaileak kontratu honen xede den zerbitzua egingo duten langileei eragiten dieten antolamendu-aldaketa guztien berri emango dio Zugazteli.

Halaber, enpresa esleipendunak izendatutako teknikariak aldatu egin daitezke Zugaztelek hala eskatzen badu, adjudikazioa egiteko baldintzak bete ez direla antzemanez gero. Horrelakoetan, enpresa esleipendunak beste pertsona batzuk proposatu beharko ditu, hasieran proposatutakoen kategoria eta kualifikazio bera edo antzekoa dutenak. Inguruabar horrek ez du aldatuko, inola ere, eskainitako prezioa.

Hilero, enpresa adjudikaziodunak Zugazteli jakinarazi dio nola doazen sare sozialak dinamizatzeko lanak eta kontuen euskarri lanak. Honako hauen berri ere emango dio: BFAren kanal digitaletan edukiak kudeatzeko koordinazioa, BFAren web kanalaren egokitzapena Estrategia Digitalera hedatzea eta zerbitzu horiek egiteko sartutako orduak.

4.3 ZERBITZUAREN ORDUTEGIA

Lan taldearen dedikazioa zerbitzuaren ordutegiaren barruan egingo da, urteko egun guztietan, 24x7 ordutegian.

- Zerbitzu gehienak egiteko gutxi gorabeherako ordutegia izango da astelehenetik ostiralera, 8:30-19:00.

- Zerbitzu teknikoak 24*7 ordutegian egingo dira, eta 4 orduko gehieneko asistentzia-denborarekin, oharra egiten denetik hasita. Euskarri tekniko honek sartuta izan behar ditu berehalako erantzun-denbora eta arazoak konpontzeko 6 orduko gehieneko denbora.

4.4 SEGURTASUN ETA KONFIDENTZIALTASUN BALDINTZAK

Zugaztelek, behar izanez gero, bere sistema informatikoetan sartzen utziko du, aldez aurretik ezarritako prozedura eta baimenekin bat, eta kontratu honek zehaztutako zerbitzuak burutzeko beharrezkoa den informazioa eta dokumentazioa emango du. Enpresa esleipendunak konpromisoa hartuko du informazio hori Oinarri Teknikoen Pleguetako helburuetarako baino ez erabiltzeko; halaber, konpromisoa hartuko du informazio hori ez ateratzeko, ez lagatzeko, ez argitaratu edo saltzeko, osorik edo partzialki, ez euskarri informatikoan ez paperean, eta itzuli egin beharko ditu jasotako informazio-euskarriak, baita ekipo informatikoetatik deskargatu ere (baldin badaude), behin lana bukatuta.

Esleipendunak segurtasun arloko konpromisoak bere gain hartu eta arauak bete beharko ditu lan hau dela-eta erabiliko dituen informazio-sistemei dagokienez, indarrean dagoen legeriarekin bat. Hala enpresa nola lan-taldea berariaz derrigortuta daude erabateko konfidentzialtasuna eta zuhurtzia gordetzera kontratua betetzean ezagutu dezaketen edozein daturi buruz, bereziki datu pertsonalak badira. Ezingo ditu kopiatu, ez Oinarri Teknikoen Pleguetako helburuetatik kanpo erabili, ezta gordetzeko beste batzuei laga ere

Ondore horietarako, kontu handiz jokatu beharko da datuak erabiltzean. Arlo honetan egindako arau-hausteak larriak izango dira eta kontratua suntsitzeko arrazoi, egon daitezkeen erantzukizun penalen edo bestelakoen kalterik gabe.

Klausula bereziak bete beharko ditu esleipendunak, eta, bereziki, Klausula Berezien Pleguko “11.3. Datu pertsonalak babestea” eta “11.5. Informazioaren segurtasuna” atalak.

4.5 JABETZA INTELEKTUALA

Enpresa esleipendunak honako klausula hauek onartzeko konpromisoa hartzen du:

- Lanarekin zerikusia duten jabetza intelektualaren eskubideak Zugaztelenak dira. Horren ondorioz sortutako edozein produktu edo azpiproduktu dagokion eremutik kanpo ezingo da beste helburu batzuetarako erabili, Zugaztelek berariaz idatziz baimentzen ez badu. Enpresa esleipendunak ZUGAZTELi helaraziko dizkio artxibo guztien iturri guztiak, baita programatzeko erabilitako baliabide guztiak ere.
- Lana egiten zen bitartean sortutako dokumentazioa Zugaztelen jabetza esklusibokoa da, eta enpresa esleipendunak ezingo du jaso, ez eta kopia bat lortu edo hirugarrengoei eman ere, Zugaztelen idatzizko baimen zehatzik gabe.

Hala badagokio, Zugaztelek baimen hori emango lioke, enpresak zertarako behar duen berariaz adieraziz eskaera formala egin ondoren. Zugaztelek berariaz ematen du baimena lan honen emaitzak erreferentzia gisa eta Zugaztelek berak egingo dituen lanen oinarri gisa erabiltzeko.

- Enpresa esleipendunak Zugaztelek eskuratutako informazioaren konfidentzialtasuna bermatu beharko du eta, datu pertsonalei dagokienez, arlo horretako indarreko legeria bete beharko du. Lanak egiten ari diren bitartean ezagut ditzaketen datu, informazio eta dokumentu guztiei buruz, enpresako kolaboratzaile guztiek erabateko lanbide sekretua mantentzeko konpromisoa hartzen dute, irudikapen modua (ahoz edo idatziz) alde batera utzita. Informazio horiek esklusiboki kolaboratzaileek lortuko dituzte, ezinbestez aipatzen ari garen eremuaren barruan atxikitako zereginak garatzeko behar badituzte. Guztiei ohartaraziko zaie lortuko duten informazioa zorrozki konfidentzial eta zuhurra dela.

Era berean, enpresa esleipendunak Zugazteli berehala jakinarazi beharko dio informazioaren segurtasun eta babes sistemaren akats edo ihesekin zerikusia duen edozein susmori buruz, hori proiektua garatzen ari den bitartean hautematen bada.

Kanariar Uharteak, 21, 3.solairua
48015 BILBO (Bizkaia)
Tel - Telf: (+34) 94 656 7717
Faxa - Fax: (+34) 94 401 2348
erosketakzugaztel@bizkaia.eus
http://zugaztel.bizkaia.eus

SI-0002/ 2013
ER-1141 / 2011

- Herritarrei arreta eskaintzeko kanal anitzeko azpiegituren diseinua eta garapena / *Diseño y desarrollo de infraestructuras multicanal para la atención a la ciudadanía*
- Dokumentuei alta eman eta horiek grabatu nahiz digitalizatzea zerbitzua / *Servicio de alta, grabación y digitalización de documentos*
- Herritarrei kanal orotako arreta ez-presentziala eskaintzeko zerbitzua / *Servicio de atención no presencial omnicanal a la ciudadanía*
- Marketing digitaleko zerbitzua: sare sozialen eta eduki digitalen koordinazioa, plangintza, argitalpena, monitarizazioa eta jarraipena / *Servicio de marketing digital: coordinación, planificación, publicación, monitorización y seguimiento de social media y contenidos digitales*

1. ERANSKINA

Hilero entregatuko da plegu honen xede den zerbitzuan egindako materiala, aldiriko bileretan ezarritako plangintzari jarraituz.

Entregagai bakoitzak hurrengo material guztia izan behar du (uneko beharrak direla-eta entregagai batean hizkuntzarik edo elementurik sartu behar ez bada, adierazi egingo da), eta teknikoki egokitu ahal zaie plataforma teknologikoen beharrei kontratu honek dirauen bitartean::

<table>
<tr><td colspan="3">BIDEOAK EUSKARAZ</td></tr>
<tr><td colspan="3">• Gidoia</td></tr>
<tr><td colspan="3">• Sortutako bideoaren jatorrizko edizio-fitxategiak (premiere proiektua, after effects, final cut edo muntaketarako erabilitako erreminta)</td></tr>
<tr><td colspan="3">• Bideoaren euskarazko transkripzioa, xml formatuan</td></tr>
<tr><td>SD kalitateko bideoa
• Formatua: PAL
• Bereizmena: 1024x576
• Formatu-ratioa: 16:9.
• Konpresioa: MP4
• Bitrate: 600 eta 1300 kb/s bitartean.</td><td>HD kalitateko bideoa
• Formatua: PAL
• Bereizmena: 1280x720
• Formatu-ratioa: 16:9.
• Konpresioa: MP4
• Bitrate: 10000 eta 20000kb/s bitartean.</td><td>Full HD kalitateko bideoa
• Formatua: PAL
• Bereizmena: 1920x1080
• Formatu-ratioa: 16:9.
• Bitrate: mugarik gabe
• Gainjartze-geruzarik gabe (titulazioa, eulia)</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td colspan="3">BIDEOAK GAZTELANIAZ</td></tr>
<tr><td colspan="3">• Gidoia</td></tr>
<tr><td colspan="3">• Sortutako bideoaren jatorrizko edizio-fitxategiak (premiere proiektua, after effects, final cut edo muntaketarako erabilitako erreminta)</td></tr>
<tr><td colspan="3">• Bideoaren gaztelaniazko transkripzioa, xml formatuan</td></tr>
<tr><td>SD kalitateko bideoa
• Formatua: PAL
• Bereizmena: 1024x576
• Formatu-ratioa: 16:9.
• Konpresioa: MP4
• Bitrate: 600 eta 1300 kb/s bitartean.</td><td>HD kalitateko bideoa
• Formatua: PAL
• Bereizmena: 1280x720
• Formatu-ratioa: 16:9.
• Konpresioa: MP4
• Bitrate: 10000 eta 20000kb/s bitartean.</td><td>Full HD kalitateko bideoa
• Formatua: PAL
• Bereizmena: 1920x1080
• Formatu-ratioa: 16:9.
• Bitrate: mugarik gabe
• Gainjartze-geruzarik gabe (titulazioa, eulia)</td></tr>
</table>

<table>
<tr><td>BIDEOAK INGELESEZ</td></tr>
<tr><td>• Gidoia</td></tr>
<tr><td>• Sortutako bideoaren jatorrizko edizio-fitxategiak (premiere proiektua, after effects, final cut</td></tr>
</table>

edo muntaketarako erabilitako erreminta)		
• Bideoaren ingelesezko transkripzioa, xml formatuan		
SD kalitateko bideoa • Formatua: PAL • Bereizmena: 1024x576 • Formatu-ratioa: 16:9. • Konpresioa: MP4 • Bitrate: 600 eta 1300 kb/s bitartean.	HD kalitateko bideoa • Formatua: PAL • Bereizmena: 1280x720 • Formatu-ratioa: 16:9. • Konpresioa: MP4 • Bitrate: 10000 eta 20000kb/s bitartean.	Full HD kalitateko bideoa • Formatua: PAL • Bereizmena: 1920x1080 • Formatu-ratioa: 16:9. • Bitrate: mugarik gabe • Gainjartze-geruzarik gabe (titulazioa, eulia)

EUSKARAZKO BIDEOAK SARE SOZIALETAN, GEHIENEZ MINUTU BATEKO IRAUPENAREKIN	
• Gidoia	
• Sortutako bideoaren jatorrizko edizio-fitxategiak (premiere proiektua, after effects, final cut edo muntaketarako erabilitako erreminta)	
• Bideoaren euskarazko transkripzioa, xml formatuan	
SD kalitateko bideoa • Formatua: PAL • Bereizmena: 1024x576 • Formatu-ratioa: 16:9. • Konpresioa: MP4 • Bitrate: 600 eta 1300 kb/s bitartean.	HD kalitateko bideoa • Formatua: PAL • Bereizmena: 1280x720 • Formatu-ratioa: 16:9. • Konpresioa: MP4 • Bitrate: 10000 eta 20000kb/s bitartean.

GAZTELANIAZKO BIDEOAK SARE SOZIALETAN, GEHIENEZ MINUTU BATEKO IRAUPENAREKIN	
• Gidoia	
• Sortutako bideoaren jatorrizko edizio-fitxategiak (premiere proiektua, after effects, final cut edo muntaketarako erabilitako erreminta)	
• Bideoaren gaztelaniazko transkripzioa, xml formatuan	
SD kalitateko bideoa • Formatua: PAL • Bereizmena: 1024x576 • Formatu-ratioa: 16:9. • Konpresioa: MP4 • Bitrate: 600 eta 1300 kb/s bitartean.	HD kalitateko bideoa • Formatua: PAL • Bereizmena: 1280x720 • Formatu-ratioa: 16:9. • Konpresioa: MP4 • Bitrate: 10000 eta 20000kb/s bitartean.

<table>
<tr><td colspan="2">INGELESEZKO BIDEOAK SARE SOZIALETAN, GEHIENEZ MINUTU BATEKO IRAUPENAREKIN</td></tr>
<tr><td colspan="2">• Gidoia</td></tr>
<tr><td colspan="2">• Sortutako bideoaren jatorrizko edizio-fitxategiak (premiere proiektua, after effects, final cut edo muntaketarako erabilitako erreminta)</td></tr>
<tr><td colspan="2">• Bideoaren ingelesezko transkripzioa, xml formatuan</td></tr>
<tr><td>SD kalitateko bideoa
• Formatua: PAL
• Bereizmena: 1024x576
• Formatu-ratioa: 16:9.
• Konpresioa: MP4
• Bitrate: 600 eta 1300 kb/s bitartean .</td><td>HD kalitateko bideoa
• Formatua: PAL
• Bereizmena: 1280x720
• Formatu-ratioa: 16:9.
• Konpresioa: MP4
• Bitrate: 10000 eta 20000kb/s bitartean.</td></tr>
</table>